

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Ikas Zailtasunak	151312	2020-2021
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	2	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko Formazioa	6 ECTS	Euskara
Irakaslea(k)		
Iratí Alvarez Piñero		

Justifikazioa

Ikas Zailtasunak ikasgaia, Ikas zailtasunak eta Garapenaren nahasteak deritzan Materiari dagokio, Hezkuntza Premia Berezien Oinarri Psikopedagogikoak deritzan ikasgaiarekin batera etorkizuneko irakasleentzako funtsezko materia izanik.

Ikasgai honetan Ikas zailtasunak lantzen dira, muga kontzeptualetatik abiatuz eta ikasleei zailtasunok antzemateko tresnak ezagutzeko aukera emanez. Halaber, egungo hezkuntza sistemaren baitan haur hezkuntzaren erantzun hezigarria hobetzeko proposamen desberdinak landuko dira.

Kontuan izanik Ikas Zailtasunak ezin direla era isolatuan ulertu, baizik eta ikas-irakaskuntza prozesu osoaren parte gisa, euren ebaluaketa eta planteatzen den esku hartzea hezkuntza testuinguru zehatz batetik abiatu beharko da, eragile guztien parte hartze eta lankidetzarekin (familia, eskola, profesional espezializatuak). Zentzu honetan, ikasgai honek aukera ematen du zailtasunak antzemateko tresna eta klabeak ezagutu, ikas zailtasunen ebaluaketa egin eta kasuan kasuko hezkuntza proposamenik egokiena hautatzeko.

Hori dela eta, sei hilekoan zehar irakasle-gaiek elkarrizketa, esperientzia eta iritzien elkartrukea, irakurketa kritikoa, behaketa edota materialen diseinuaren bitartez, haur hezkuntzan zehar ager daitezkeen ikas zailtasunak hautemateko klabeak barneratuko dituzte, egungo gizartearen aurrerapen eta beharrezkoen arabera hezkuntza erantzuna emateko gaituz.

Aurrebaldintzak

Ez daude

Gaitasunak

Gaitasun orokorra

Ahozko komunikazioa (lehen maila): norberaren ideiak ondo antolatuta eta ulertzeko moduak adieraztea, une egokian mintzatuz eta ekarpen egokiak eginez hala harreman egoeretan nola egoera formalago eta egituratuagoetan.

Berriazko gaitasunak

1. Ikasketa-zailtasunen kontzeptuaren konplexutasunaz jabetzea, beraren funtsezko ezaugarriak bereiziz, detekzio goiztiarra eta prebentzioa errazten dituen hezkuntza-erantzun bat emateko.
2. Haurraren atzerapenak edo zailtasunak prebenitzeko adierazleak detektatzea, egokitzat jotzen diren profesionalen laguntzarekin, bai hizkuntza eskuratzeko prozesuetan eta bai irakurtzeko eta idazteko prozesuetan, haurraren eboluzioa ondo bideratzeko eta taldean integratzeko xedez.
3. Ikaskuntzaren helburuak lortzeko lagungarriak diren estrategiak diseinatzea ikasgelaren barnean, hezkuntza errazten duen testuinguru bezala, hitz egiteko eta hizkuntzaren erabilera estimulatzeko xedez.
4. Irakurketa eta idazketaren ikaskuntza guztiengan bultzatzen duten metodoak eta estrategiak aztertzea, kontuan hartuta, batez ere, zer neurritan erantzuten dieten ikasleen zailtasunei.
5. Emozioak hezteko eta bizitzarako gaitasunak eta autonomia garatzeko estrategiak erabiltzea, ikasle bakoitzaren ezaugarrietatik abiatuta.
6. Lankidetzaren sareak eta mekanismo eraginkorrak eratzea familiaren, eskolaren eta komunitateko beste profesional eta zerbitzu batzuen artean, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen garapen integralari laguntzen dioten komunikazio-prozesu eraginkorrak garatuz.

Edukiak

1. UNITATEA:

Hurbilpen orokorra Ikasketa-zailtasunetara: Kontzeptualizazioa eta sailkapena. Ikasketa-zailtasunak testuinguruan jartzea, haur hezkuntzako etapan.

2. UNITATEA:

- Hizkeraren eta hizkuntzaren zailtasunak: hizkuntza eskuratzeko eta garatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak, etapa honetako haurren aldetik.
- Komunikazio, hizkera eta hizkuntzaren arazo nagusiak; hizkera eta hizkuntza garatzean sortzen diren zailtasunen detekzioa eta ebaluaketa;
- Esku-hartzeko estrategiak hizkuntza-gaitasuna estimulatzeko eta ahozko hizkuntzaren zailtasunak prebenitzeko eta hobetzeko.

3. UNITATEA: Zailtasunak irakurketa-idazketaren eta matematikaren ikaskuntzan.

Prebentzio, esku-hartze eta plangintza didaktikoaren gakoak irakurketa-idazketa eta matematika ikasten hasteko prozesuan

4. UNITATEA: Ikaskuntza-zailtasunak eta jokabide-arazoak. Errealitate baten azterketa. Irakasleen jarrerak. Estrategiak eta baliabideak jokabide-arazoei ikasgelan erantzuteko. Profesionalen eta familien arteko lankidetzaren hezkuntza-zereginen.

Ikas-irakaskuntzastrategiak

Ikasgaiak asteko lanean oinarrituriko egitura egonkorra mantentzen du.

Saioetan metodologia anitzetan oinarritutako jarduera desberdinak burutuko dira:

1.- Esperientzian oinarritutako inguratzea: Etorkizuneko irakasleak ikas zailtasun nagusietara hurbiltzeko jarduerak, euren aurrezagutza eta esperientzia pertsonalaren hausnarketatik abiatuz, eta kasu praktikoen ikasketa, esperientzia eta galdera pertsonalen bidez errealitatea era global eta osoagoan birplanteatzeko helburuaz.

2.- Kontzeptualizazio aktiboa: Artikuluaren irakurketa eta testu interesgarrien irakurketa dialogikoa gaietan sakontzeko edota hezkuntzaren errealitatearen ulermen sakona eta ezagupen aplikagarria lortzeko iritzi eta ideien aurkezpena eta eztabaida.

3.- Behaketa erreflexiboa eta esperientziazko aktiboa: Lan proposamen zehatzak burutzea (ahozko hizkuntza aztertzeko jardueren diseinua, ikerketa metodoen aplikazio eta emaitzen ikerkuntza...).

4.- Ebaluaketarako jarduerak: Hala nola taldeka zein banaka egindako lanen ahozko edo idatzizko aurkezpenak, edota irakasleak eskatuko dituen txosten indibidualak (portfolioa, kasu).

Baliabideak: Ikasgaiko ikasketa prozesua garatzeko bereziki prestatuko materiala edo hautatua, bai ikus-entzunezkoa, bai paperezkoa edo oinarri digitalean.

Ebaluazioa

1.- Azterketa (%40)

2.- Banakako lanak:

- Ahozko komunikazioa Role Playing (5%)
- Ahozko komunikazioa Aurkezpena (5%)
- Portafolio (15%)

3.- Talde-lanak:

- Dislexia (10%)
- Ahozko komunikazioa Galdera (5%)
- Hizkuntza (20%)

Lanak aurkezteko irizpideak: Lanetan tapa (bertan ikasleen izen-abizenak adierazita), aurkibidea, sarrera, garapena, ondorioak eta erabilitako bibliografia agertu behar dira. Idatzizko lan guztietan, arretaz zaindu behar dira sintaxia, gramatika eta ortografia. Ildo horretan, ebaluazio-irizpideari jarraituz, ikastaldiak aurrera egin ahala, eskaera maila areagotuz joango da. Aurkeztu beharreko lanak BAM-en Estilo Arauetan jasotako jarraibideen arabera prestatuko dira.

Azken kalifikazioa: Azken kalifikazioa zehazteko, lortutako kalifikazio partzial guztien batura egingo da, kalifikazio partzialoi dagokion balorazio portzentajea esleiturik. Ikasgaia gainditzeko, 10 puntutik gutxienez 5 lortu beharko dira.

- Zati-takako bakoitzerako gutxienezko irizpidera heltzen ez denean (zatiaren notaren %50 gutxienez), ez da beste zatiekin batez bestekorik egingo. Beraz, dagokion deialdiko kalifikazioa GUTXIEGI izango da.
- Lehenengo deialdia gainditu ezean, gainditutako zatien kalifikazioak gorde egingo dira, eta gainditu ez diren elementuei baino ez zaie erantzun beharko 2. deialdian.
- Bigarren deialdia gainditzen ez bada, aurretiaz gainditutako elementuen kalifikazioak baliorik gabe geratuko dira, eta ikasgai osoa jorratu beharko da hasieratik hurrengo ikastaldian.

Dokumentazioa

- Acosta, V. M. eta Moreno, A. M. (1999). *Dificultades del lenguaje en ambientes educativos. Del retraso al trastorno específico del lenguaje*. Barcelona: Elsevier Masson.
- Cuetos, F. (1991). *Psicología de la escritura. Diagnóstico y tratamiento de los trastornos de escritura*. Madrid: Editorial Escuelas Españolas S. A.
- Defior, S. (2007). *Las dificultades de aprendizaje: un enfoque cognitivo* (2º ed.). Archidona, Málaga: Aljibe.
- Dolz, J., Gagnon, R., Mosquera, S., eta Sánchez, V. (2013). *Producción escrita y dificultades de aprendizaje*. Barcelona: Graó.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua – Gobierno Vasco. *Autismoa haurtzaroen. Komunikazio-arazoak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua – Gobierno Vasco. *Jardunbide egokien gidaliburua. Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Fiuza, M. J. eta Fernández, M. P. (2013). *Dificultades de aprendizaje y trastornos del desarrollo. Manual didáctico*. Madrid: Ediciones Pirámide.
- García, J. N. (1998). *Manual de dificultades de aprendizaje: lenguaje, lectoescritura y matemáticas*. Madrid: Narcea Ed.
- Gobierno de Navarra (1989). *Prueba de Lenguaje Oral Navarra. PLON*. Pamplona: Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura.
- González, D. (2002). *Las dificultades de aprendizaje en el aula*. Barcelona: Ed. Edebé.
- Jáuregui, C. A., Mora, C. A., Carrillo, D., Oviedo, N., Pabón, Y. L., eta Rodríguez, A. J. (2016). *Manual práctico para niños con dificultades en el aprendizaje. Enfoque conceptual e instrumentos para su manejo*. Bogotá, Colombia: Editorial Médica Internacional.
- Juárez, A. eta Monfort, M. (1996). *Estimulación del lenguaje oral. Un modelo interactivo para niños con dificultades*. Madrid: Ed. Santillana.
- Marchesi, A., Coll, C., eta Palacios, J. (2012). *Desarrollo psicológico y educación 3. Trastornos del desarrollo y necesidades educativas especiales*. 2. Ed. Madrid: Alianza Ed.
- Miranda, A., Vidal-Abarca, E., eta Soriano, M. (2000). *Evaluación e intervención psicoeducativa en dificultades de aprendizaje*. Madrid: Pirámide.
- Nicasio, J. (1998). *Manual de dificultades de aprendizaje. Lenguaje, lecto-escritura y matemáticas*. 3.ed. Madrid: Narcea S.A. de Ediciones.
- Pérez, J. I. (2004). Hizkuntzaren garapenaren nahasteen komorbilitatea emozio-eta jokabide-arazoekin: aintzat hartu beharrekoak lehenbailehen hautemateko, ebaluatzeko eta esku hartzeko. Non: M. Haranburu eta E. Sansinenea (arg.), *Osasunaren psikologia*. Bilbao: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Rigo, E. (2006). *Las dificultades de aprendizaje escolar. Manual práctico de estrategias y toma de decisiones*. Barcelona: Ars Medica.
- Salvador, F. y Gutiérrez, R. (2005). *Atención educativa al alumnado con dificultades en lectura y escritura*. Archidona, Málaga: Aljibe.
- Quintanar, L., Solovieva, Y., Lázaro, E., Bonilla, M. R., Mejía, L., eta Eslava, J. (2008). *Dificultades en el proceso lectoescritor*. Laguna de Duero: Editorial de la Infancia.